



Erasunek irabazi du Gipuzkoako II. Mailako Aizkolari Txapelketa Ibarra

POSTUAK ▶ Zizurkildarrak 19 minutu 56 segundo
egin zuen; Otaño 4.a, Mujika 7.a eta Otaegi 11.a ▶ 6



Juan Manuel Erasun txapelarekin, saria jasotzen Xoplako lehendakariaren eskuetatik. JON URBE/ARGAZKI PRESS



JON URBE/ARGAZKI PRESS

'Urki' eta Zuriarrain, Euskadiko finalerdietara

ORENDAIN ▶ Segalari orendaindarrak
1.826,5 kilo bildu zituen eta amasarrok
1.412; «orain dator zailena» diote biek ▶ 5

TOLOSA ▶

Ohorezko Mailan jarraituko du Hegoalde

«Baleko 10. postuan»
amaitu du ▶ 2

LEITZA ▶

Saralegik ez zuen lortu Urrezko Harri- jasotzaileen Saria

'Zelailuze'-rekin batera galdu zuen
Azpeitian; Kanflanka, 3. segan ▶ 7

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
NEREA
LENTZERIA
1952

**Trikiniak,
bainujantziak,
hondartzarako
kamisolak**

EMAITZAK ETA SAILKAPENAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen Ohorezko Liga.
Hegoalde-Cabanyal Valencia 5-4

Ibarzabal-Tolosa 10-16
Altuna-Otamendi /
Otaegi-Saralegi 16-06
Gil-Sagastibelza /
Mangas-Ibargoién 16-07

Ebeberria-Arozena /
Eskudero-Jauregi 16-06
Jaunarena-Olano /
Mabinea-Arratibel 04-16

PILOTA

HITZA PILOTA TXAPELKETA.

Benjaminak (final-haurdenak).

Ontsalo-Elizalde /
Egiguren-Garziarena 16-04
Aizpuru-Arrue /

Alebinak (final-haurdenak).

Apeztegia-Arizmendi /
Jauregi-Arrue 16-13
Maiza-Manterola /
Luzia-Manzisor 10-16

Infantilak (final-haurdenak).

Bereau-Madariaga /
Urbieta-Urbieta 03-18
Aizpuru-Etxaniz /
Ansotegi-Zinkunegi 07-18
Apezbea-Aranburu /



Asteburuko finalerdi bat, Beotibarren. IÑIGO TERRADILLOS

Otaegi-Iraola 07-18
Jaunarena-Bera /
Sukia-Arzelus 08-18

Etorkizunekoak (finalerdiak).

Loiarre-Errarte
(Umire Ona) /
Elurbe-Garmendia (Zazpi Iturri) 08-22
Renobales-Larrazabal
(Aurrera Saiaz) /
Beitia-Urriarte (Usansolo) 22-14

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

LEIRE MONTES

Zaleei eskainitako garaipenarekin esan dio agur denboraldiari Hegoalde areto futbol taldeak. 5-4 irabazi zion larunbatean Cabanyal Valencia taldeari, Berazubín. Hala, 10. postuan amaitu du 2004-2005 Liga, eta datorren denboraldian ere Emakumezkoen Ohorezko Mailan jokatu du.

Garrantzirik gabeko partida zen larunbateakoa. Irabaziz gero, bi postu besterik ez zituelako igoko Hegoalde, beti ere aurreko taldeek galtzen bazuten. Eta Cabanyal Valenciak ez zutelako jada ezer egiterik Ligan: azken postuan, mailaz jaitsiko zirela bazekiten larunbaterako. Hala, agurtzeko partida izan zen Berazubikoa bi taldeentzat, eta jokalariek guztiak kantzaratzeko aukera eman zien.

Dena den, partida polita ikusi zen Berazubín. Irekia, eta gol dezentekoa. 2-1 eko alde zuten valentziarrek atsedenaldian, baina bigarren zatian aurrea hartzea lortu zuten Tolo-sakoek.

Datorrenean ere, Ohorezko Mailan

«Baleko 10. postuan» amaitu du denboraldia Hegoalde; zaleei eskainitako garaipenarekin agurtu du denboraldia



Hegoaldeko zenbait jokalariek, Berazubín, denboraldi hasieran ateratako argazkian. IMANOL GARCIA

Harrobia, gako

Denboraldia amaituta, «pozik» dira egindakoarekin Hegoaldeko ordezkariek. Maite Argote entrenatzailearen esanetan, «baleko 10. postuan» sailkatu da taldea, eta «jokalariek guztiak grina eta ilusioa» gorai patatu ditu. Haren iritziz, harrobia izan da gako: «Harrobiaren aldeko apustua egin izan dugu beti, eta aurtur ere etxeko jokalariekin aritu gara. Horretan datza gure arrakastak. Beste hainbat talde, berriz, txeketegian oinarritzen dute beren funtziona-

lariak. Ez dugu, baina, haiengandik ezer ikastekorik. Guk harrobien sinisten jarraituko dugu».

Hegoalde izango da hurrengo denboraldian Euskal Herriko talde bakarra Ohorezko Mailan, Goierri taldea jaitsi egin baita. Haietzako animo hitzak badiu Argotek: «Zortzi urtez jarraian sekulako jazarpenak jasan behar izan dituzte eta, zoritxarrez, ez ditugu gure artean izango. Gauza guztien gainetik, talde horren lana, ahalegina eta duintasuna txarritu behar ditugu».

HEGOALDE K.E. ▶ 5

CABANYAL ▶ 4

Hegoalde. Lourdes Zuriarain, Isa Barrio, Arrate Martínez, Maider Lopez, Miriam Arana —hasierako bostekoa—, Edurne Agirrebe, Amaia Azpillikueta, Itziar Aldezabal, Esther Videra, Gema Zelaia eta Naiara Mayo. Entrenatzailea: Maite Argote.

Cabanyal. Arantxa Mallen, Ana Iguar, Ana Aguilár, Susana Ortola, Pilar Redon —hasierako bostekoa—, Manuela Perea, Laura Sanchos, Leonor Gomez, Patricia Real, Alicia Ordaz, Natalia Maya eta Ruth Tomas. Entrenatzailea: Julio Martín.

Golak. 1-0: Arrate Martínezek (05m.); 1-1: Natalia Mayak (08m.); 1-2: Ruth Tomasek (19m.); 2-2: Maider Lopezek (22m.); 3-2: Isa Barriok (23m.); 4-2: Maider Lopezek (27m.); 4-3: Patricia Realek (33m.); 5-3: Maider Lopezek (38m.); 5-4: Arantxa Mallenek (38m.).

Epaileak. Aitor Felipe eta Igor Gereta.

TOLOSA ▶

‘Kirola nola egin bizkarra hondatu gabe’, gaur

Kirola nola egin bizkarra hondatu gabe hitzaldia antolatatu du gaur Kirol departamendua. Michel Marmier doktoreak azalpenak eta prebentziarako aholkuak emango dizkie solasaldira joandakoei. 20:00etan hasiko da saioa, Kultur Etxean.

TOLOSA ▶

Egoitz Zalakain 11. Zarauzko triatlloan

Egoitz Zalakain tolosarra 11. helmugaratu zen Zarauzko triatlloan, larunbatean. Gizonezkoetan Clemente Alonsok irabazi zuen eta emakumezkoetan, Ainhoa Muriak.

TOLOSA ▶

Izen-ematea Arsenal-en areto futbol txapelketan

Arsenal elkarteak, urtero legez, San Joan areto futbol txapelketa antolatuta du. Hilaren 17tik 23ra jokatu dira partidak Berazubín, eta finala hilaren 26an izango da. 1993an, 94an, 95ean eta 96an jaiotako Tolosaldeko eta Leitzaldeko neska-mutilek har dezakete parte. Gaur amaituko da izena emateko epea, Shanti Kirolak dendan (943 65 34 24). eta bihar izango da zozketa. Arsenalen.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. 3 logelako etxebizitza berritzeko. Igogailua. Kokapen onekoa. Etxesagasti 943 69 68 56.

Asteasu. Txalet eraike berria. Ezin hobe. Lurra, garajea eta trastelekuak. Etxesagasti 943 69 68 56.

Lizartea. 100 m²-ko etxebizitza guztiz eraberritua. Kanpoaldera. 34 m²-ko garajea. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Tolosa. Terraza zabal duen logela bateko etxebizitza polita. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 72 m². Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 3 logelako etxebizitza berria. Bi autorentzako garajea trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Hiru logelako etxebizitza. Erdi eraberritua. Igogailua eta trastelekuak. 36.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56. **Zizurkil.** 95m²-ko etxebizitza ederra.

3 logela. Kanpoaldera. Balkoiak. Egoera onean. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan. Itxaron zerrrenda dugu.

HEZKUNTZA ▶

Mintegien zikloko azken saioa

Gaur izango da, 18:00etatik aurrera, Tolosaldeko Goi Mailako LHIn

I. ETXEBESTE

Joan den urritik Miramon Enpresa Digitala Tolosan antolatzen aritu den mintegi zikloa amaitzean da. Merkataritza elektronikoko sistemak nola jarri landuko dira azken saio horretan, eta gaur bertan izango da, 18:00etatik aurrera, Tolosaldeko Goi Mailako LHIn.

Gaurkoarekin, zortzi izango dira Tolosan autonomoei eta mikroenpresei zuzenduta egin dituzten mintegiak. Horietan, informazio-teknologiek lotura duten gai ugari eta neurri txikiagoko enpresei eskain diezaieketen abantailak landu dituzte, batez ere ikuspuntu praktikotik abiatuta. Mintegien gai ugari gerturaz ahalbidetu dute: administrazioarekin izapideak on-line egitea, Interneteko konexioa, Interneteko

segurtasuna, web garapeneko zerbitzuen hornitzaile bati zer eskatu jakitea, telefonia mugigarriari onura ateratzen jakitea, softwarearen alokairu zerbitzuak, finantza erakundeekin on-line eragiketarako egitea edo merkataritza elektronikoko sistemak jartzeko ikastea, besteak beste.

«Mintegi-ziklo hori eGipuzkoa 2005 ekintza planaren eta Euskadi Informazioaren Gizartearen planaren baitan kokatzen da, izan ere, horien helburu da, beste hainbaten artean, Gipuzkoa lurralde aurreratua izatea enpresak informazioaren gizaratean sartzeari dagokionez, konektatzeko aukerak eta merkataritza elektronikoa garatzeko bidez, hain zuzen ere».

Helburu horretan sakontzeko, hain justu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlari-

tzak, Miramon Enpresa Digitalaren bidez, beren ohiko jardun eremutik haratago joan eta beren prestakuntza lana zabaltzearen aldeko apustua egin dute ikasturte honetan, Donostiako Parke Teknologikoan gauzatzen denetik. Horretarako antolatutako autonomoei eta mikroenpresei zuzendutako mintegiak Gipuzkoako hainbat udalerritan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimena da Enpresa Digitala, eta honakoak ditu helburu nagusiak: enpresaren barneko eragileak sentibilizatzea eta prestatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea lehiako zein garrantzitsua den ohar daitezkeen eta informazioaren gizarateko bidean aurrera egitea. Horrez gain, ekonomia berriko

profesionalei gaikuntza eta laguntza eskainiz sarean negozio berriak garatzen laguntzea ere badu xede.

Enpresa edo negozio txikiak

«Internetek eskaintzen dituen aukerak komunikazio soila baino askoz gehiago dira. Gero eta enpresa gehiagok erabili ohi du Sarea saltzeko eta erosteko erraminta eragingarri gisa. Aukera hori enpresa edo negozio txikiak ere aprobezka dezakete, merkataritza elektronikoko sistema jartzen dutenean».

Mintegien izena eman nahi dutenek 902 252 595ra dei dezakete, edo mezua bidali cursos@miramondigital.com helbiderai. Gainera, SPRIK eta Enpresa Digitalak argitaratu duten bilduma teknologikoaren lehen bi aleak eskura daitezke, horretarako modua jakinaraziko baita bertan. Bi eskuliburu horien izenburuak honakoak dira: *Zer egin birus informatikoaren aurrean* eta *Zabor-poltsa nola eragotzi*.

MENDIA ▶

Mendi irteera antolatu du Alpinok Errioxa aldera

Valvaneratik abiatu, eta Valdecaray aldera joango dira; egoitzan eman daiteke izena

I. ETXEBESTE

Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatu du iganderako Errioxara. Valvaneratik abiatu, eta Valdecaray aldera joango dira mendizaleak, eta tartean San Lorenzozoko (2.271m.) gaina igo ahal izango dute. Izena elkarrean egoitzan (Gudari 5, behe) eman daiteke, edo 943 65 27 89 telefonoan; bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 12 euro.

Sei orduko ibilaldia izango dela iragarri dute antolatzaileek, eta Pablo Gorosabeletik irtingo dira, 07:00etan.

GIZARTEA ▶

Adinekoen Astea da hau Iurreamendin

Atzo hasi zituzten ekitaldiak; igandea bitarte, egunero izango dute zer egin



Askari bereziaz eta musikaz gozatzeko aukera izan zuten atzo. J. SAIZAR

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurreamendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

EGITARUA ▶

GAUR

- 10:30. Meza.
- 11:00. Jokoak kafetegian, sari banaketarekin.
- 17:00. Donostiako Alaitu abesbatzaren emanaldia, egoitzako kafetegian.

ASTEAZKENA

- 10:30. Meza.
- 11:00. Altxorraren bila jokoak kafetegian.
- 16:30. Iurreamendiko abesbatzaren emanaldia kafetegian.
- 17:30. Tolosako Udala Musika Eskolako ikasleen emanaldia kafetegian.

OSTEGUNA

- 10:00. Meza, Unitate Psikogeriatrikoko egoiliarrentzat.

- 11:00. Ertzaintza Musika Bandaren emanaldia, egoitzako kaperan.
- 17:00. Txokolatada lorategian.

OSTIRALA

- 10:30. Meza.
- 11:00. Tonbola.
- 16:00. Bingo berezia kafetegian.

LARUNBATA

- 10:00. Irteera sanjoanetako azoka berezira.
- 14:00. Bazkaria Euskal Herria plazako zentro sozialean.
- 18:30. Meza. 90 urte bete dituzten egoiliarrei omenaldia egingo zaie bertan.

IGANDEA

- 13:00. Bazkari berezia, Asteari amaiera emateko.

IRATXE ETXEBESTE

Iurreamendi egoitzako egoiliarrek Adinekoen Astea ari dira ospatzen atzotik, eta igandea bitarte, egunero izango dute zer egin bertan bizi direnek *etxetik* atera behar izan gabe. Izan ere, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte bertako arduradunek aste osorako.

Ortu bereziak, ospakizunak, jokoak, abesbatzen emanaldiak, meza bereziak... era guztietako jarduerak dira adinekoek hilaren 19a arte egin ahal izango dituztenak, eta, bestean artean, omenaldia egingo diete aurtengoan 90 urte bete dituzten edo beteko dituzten egoiliarrei Iurreamen-

diko arduradunek eta gainerako adinekoek.

Atzo, esaterako, eukaristiarekin eman zioten hasiera egunari. Adinekoen Asteari behar bezala ekiteko txupinazoa eta guzti egin zuten; modu berezi batean, gainera; globoekin. Jarraian jokoan egiteko aukera izan zuten, loteriarekin jardun zutelako egoitzako kafetegian. Goizekoak amaituta, bazkaltzera joan ziren adineko guztiak, eta siestatxoan egin ostein askari bereziaz gozatu ahal izan zuten, Jesus Mari Ibañezek merienda ordua alaitzen zuela.

«Gustura» dira Iurreamendiko egoiliarrek, lagunartean, bateko eta besteko ekintzez gozatzeko parada dutelako.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

Etxekoak, txapeldun

Danena-Olaederrako pultsulariek banaka zein taldeka bikain aritu ziren Euskadiko Txapelketan



Ekaitz Kortajarena eta Lourdes Gorostegi zizurkildarrak izan ziren Euskadiko txapeldunak eta errekorrak egin zituzten pultsulariak. HITZA

IMANOL GARCIA

Euskadiko XXXIII. Halterofilia Txapelketa jokatu zen larunbatean Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan. Danena-Olaederrako pultsulariek lan bikaina egin zuten eta bere federazioarentzat (Gipuzkoa) zein bakarka, hainbat urrezko domina lortu zituzten. Oso berezia izan zen gainera, banakako sailkapenean, hau da, gorputz pisuaren arabera altxatutako pisua kontuan hartzen dena, hiru zizurkildarrek osatu baitzuten podioa, hirurak Danena-Olaederrakoak: Ekaitz Kortajarena,

Teddy Martinez eta Jon Sasiain. Kontuan hartu behar da txapelketa nagusi mailan zela eta hiru pultsulariek, hurrenez hurren, 18, 17 eta 16 urte dituztela. Eta borobiltzeko, Lourdes Gorostegi zizurkildarrak ere banakako garaipena lortu zuen emakumezkoetan. Garaipena etxean lortzea berezia goa egin zuen.

Danena-Olaederrako gainontzeko pultsulariek ere maila bikaina eman zuten: Gorka Lopez eta Jon Teceadorrek bere pisu mailan urrezko domina lortu zuten eta Igor Sasiainek zilarrezkoa. Horrek guztiak Gipuzkoako Federazioak urrezko

dominak lortzea baliotu zuen. Federazio Trofeo Nagusian Gipuzkoak 213 puntu lortu zituen. Bigarren Nafarroa izan zen 186 punturekin eta hirugarrena Bizkaia 174 punturekin. Taldekako sailkapenean Gipuzkoak 342,13 puntu lortu zituen. Bigarren Bizkaia izan zen 309,13 punturekin eta hirugarren Nafarroa 300,73 punturekin.

«Bagenekien lehen postua borrokatuko genuela», adierazi dio HITZARI Batis Kortajarenak, Danena-Olaederrako entrenatzaileak. «baina faborito Bizkaia zen. Talde on bat dute, pultsulari oso erregularrekin.

Baina gurek oso ondo aritu ziren, ikuslegoak eskainitako motibazioarekin, eta beren marketatik gora aritu ziren». Banakako nagusian lehenengo hirurak Danena-Olaederrakoak izatea ere poztekoa dela azaldu zuen Kortajarenak: «Hirurak nazioarteko mailan daude. Jon Sasiainek dagoeneko egin du Europako Txapelketarako gutxienezko eta Ekaitzek eta Teddy irailan lortuko dute seguraski». Pultsari guztien lana goraiatu zuen Kortajarenak: «Espainiako Txapelketarako ia denak sailkatu dira finalean aritzeko».

Errekorrentzako tartea ere izan zen. Ekaitz Kortajarenak, junior mailan, hau da, 20 urte azpitik, Euskadiko bi errekor egin zituen: 125 kilo altxatu zituen bi denboran eta total olinpikoan 225 kilo. Lourdes Gorostegik ere lortu zuen Euskadiko errekorra, baina honek maila absolutoa. 83 kilo altxatu zituen arrankadan. Batis Kortajarenak adierazi duenez, denbora gutxira errekor gehiago egiteko aukera izango du.

Pultsulari zizurkildarren ahalegina ez ezik, aipatzekoa izan zen ere ikuslegoaren

SAILKAPENA PISUZ-PISU ▶

GIZONEZKOAK 56 kg. azpitik.

1. Igor Sasiain (Gipuzkoa)

62 kg. azpitik.

1. Ekaitz Kortajarena (Gipuzkoa)

2. Jon Sasiain (Gipuzkoa)

3. Jesus Curiel (Araba)

69 kg. azpitik.

1. Javier Davadillo (Bizkaia)

2. Jaizki Mendizabal (Gipuzkoa)

3. Jon Aranburu (Gipuzkoa)

77 kg. azpitik.

1. Teddy Martinez (Gipuzkoa)

2. Alfonso Salvador (Nafarroa)

3. Sergio Cruz (Bizkaia)

85 kg. azpitik.

1. Gorka Lopez (Gipuzkoa)

2. Javier Zelaia (Nafarroa)

3. Manuel Mari Mazo (Nafarroa)

94 kg. azpitik.

1. Francisco Cruz (Bizkaia)

2. Chema Martinez de Alegria (Araba)

3. Unai Rodriguez (Araba)

105 kg. azpitik.

1. Kepa Ortega (Bizkaia)

2. David Alonso (Nafarroa)

3. Unai Tapia (Bizkaia)

105 kg. tik gora.

1. Jon Teceador (Gipuzkoa)

2. Marlon Lopez (Nafarroa)

EMAKUMEZKOAK 58 kg. azpitik.

1. Igone Ruiz de Azua (Araba)

63 kg. azpitik.

1. Leire Torres (Nafarroa)

75 kg. azpitik.

1. Lourdes Gorostegi (Gipuzkoa)

75 kg. tik gora.

1. Maria Artxanko (Nafarroa)

erantzuna. Intxaur frontoia beteta egon zen txapelketak iraun zuen denbora tarte nagusian. Antolatzaileak oso gustura zeuden, beraz, txapelketak izan zuen harrerarengatik, eta pultsulariak jasotako animoengatik.

Lehenengo aldiz Iparraldeko pultsulariak ere aritu ziren, gonbidatuta, Euskadiko Txapelketaren saioan. Ez zuten maila handia eman, bere pultsulari onenak falta zirelako, baina antolatzaileak gustura zeuden, lehenengo elkarlana eta kontaktua egiteko balio izan baitzuten.

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Orduetgia asteleheneetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara. 600 euro eta gizarte segurantzia. Erreferentziak guttiz beharrezkoak dira. Bidali 240 posta kutxara, 20.400 Tolosa. **Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

Barandiaran Lizeoa
Matrikula: Ekainaren 30 - Uztailaren 6.

Batxilergoa:

- Natur eta Osasun Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Arteak.

Batxilergo elegantia

Manuel Lardizabal, 26 - 20.018 Donostia
tel: 943-213355 barandi02@ikastola.net

ORENDAIN ▶ SEGA

'Urki' eta Zuriarrain finalerdietara, Euskadiko Txapelketan

'Urki'-k 1.826,5 kilo bildu zituen eta Zuriarrainek 1.412; Berriozabal kanpoan geratu zen 1.150 kilo bildu zituelarik



Urki igandeko saioko une batean; 1.826,5 kilo bildu zituen orendaindarrak ordu erdian. JON URBE/ARGAZKI PRESS

NOELIA LATABURU

Herenegun Euskadiko Segatxapelketako lehen kanporaketa izan zen Orendaingo Zubeltzu azpi zelaian. Bertan Orendaingo Urki Ormaetxea, Amasako Andoni Zuriarrain eta Unai Berriozabal bizkaitarra aritu ziren. Lehen biek lortu zuten finalerdietarako txartela, orduerdian 1.826,5 eta 1.412 kilo biltzea lortu ostean, hurrenez hurren. Berriozabal, aldiz, kanpoan geratu zen 1.150 kiloko bilketarekin, 200 kiloko zigorra jaso baitzuen belarra gaizki mozteagatik.

Urki «pozik» azaldu da garaipenarekin; hala ere, oraindik «asko hobetu» egin behar duela azaldu du. «Lehen saioan nahiko urduri nengoen eta hobeto ariko nintzela uste nuen». Zuriarrain amasarrak, berriz, bere lehen saioa zuen igandekoa eta finalerdietara igaro da («dezente sufrituta»). Bere burua urduri ikusi zuen 30 urteko amasarrak eta bere esanetan, «eman nezakeen guztia ez dut eman».

Giro ederra sortu zen Orendaingo Zubeltzu azpi zelaian herenegun arratsaldean. Jende ugari bildu zen txapelketako giroan murgiltzera, eguraldia ere lagun izan zutelarik. «Giro polita izan zen eta euria ez zen ageri, saioa amaitu

EMAITZAK ▶

SEGA TXAPELKETA

Kanporaketa.

Izena	Kiloak
1. Urki Ormaetxea	1.826,5
2. Andoni Zuriarrain	1.412
3. Unai Berriozabal	1.150

arte», adierazi du jardunaldiko irabazleak.

«Orain dator zailena», adierazi dute biek ere, finalerdiko kanporaketaren gainean jarduterakoan. Izan ere finalerdietan segalarien maila igoz doa. «Hobetzeko motibazioa behintzat ez da faltako honi esker», adierazi du Urki. Zuriarrainek dioenez «oso zaila ikusten dut aurrera egitea, baina oso polita izango litzateke, beraz saiaturko naiz». Hurrengo saioa uztailaren erdialdean egingo dute Araban. Baina aurretik Gipuzkoako Txapelketa ariko dira biak ala biak, ekainaren 26an Orendainen.

Lan handiko kirola

Segako denboraldia motza da, orain hasi eta hiru hilabetez baino irauten ez duena. Baina denboraldi motz honen atzean urte guztiko lana dago. Gimnasioan, lasterketan, segan, «Oso gogorra da segaren praktikak», esan du Zuriarrainek.

AMEZKETA ▶ GIZARTEA



Betizu jate arrakastatsua larunbatean Ugarte auzoan

Noelia Lataburu ▶ Jende andana bildu zen iragan larunbatean Amezetako Ugarte auzoko pilotalekuan, bertan antolatuturik zegoen betizu jatera. Eguraldiak ere lagun izan zuten bertaratuek eta denek «pozik» igaro zuten jardunaldia. INIGO TERRADILLOS

MUNDU BAT HAMAIKA LEKU



18 bidaia

txina karibe andaluzia mallorca kantabria

旅遊
中國

Ekainaren 19tik aurrera

Kupoi guztiak bilduz gero, autorako eguzkitokos jasoke duzu opari.



berria

Laguntzailea:  bidaiak

Euskal Herriko Lehena

berria

LIZARTZA ▶ GIZARTEA



Omenaldi beroa 'Naparra'-ri

I.Terradillos ▶ Herenegun egin zioten omenaldia Lizartzan Joxe Migel Etxeberria *Naparrari* bere desagertakaren 25. urteurrenean. Igarola-Bekoa baserriaren kanpoaldean dagoen bere omenezko monolitoan izan zen jende ugari bildu zuen ekitaldia. Sendiak Batallon Vasco Español-en ekintza izan zela argi duela berretsi zuen, eta gorpuaren inguruko daturik duenari kontaktuan jartzeko eskaria egin zuen. HITZA

LIZARTZA ▶ GIZARTEA



Haimar Altunari elkartasuna adieraziz

I.Terradillos ▶ Frantziako Meaux herriko espetxean aurkitzen da Haimar Altuna, preso politikoko lizartzarra. Bertan aurkitzen dira beste hiru euskal preso, eta hori dela eta modulo berean jartzeko eskaria egin zuten. Eskariak kontuan hartu ez dituztela ikusirik gose greban daude hirurak. Halaber, lizartzarrari elkartasuna adierazteko, larunbatean eta atzo, kontzentrazioa egin zuten herrian. HITZA

IBARRA ▶ KIROLA

Erasun garaile, Gipuzkoako II. Mailako Aizkora Txapelketan

19 minutu eta 56 segundoko denborarekin garaipena zortu zuen zizurkildarrak; Otaño laugarren, Mujika zazpigarren eta Otaegi hamaikagarren geratu ziren



Aizkolariek lanean igandean Ibarroko plazan. JON URBE/ARGAZKI PRESS

IÑIGO TERRADILLOS

Igandean Ibarroko herriko plazan Gipuzkoako II. Mailako Aizkolarik Txapelketa izan zen Xepla elkarteak bere 25. urteurrenean antolatuta. Hamabi aizkolarik aritu ziren nor baino nor, eta azkenean askok uste zutena izan zen txapelketa: Juan Manuel Erasun izan zen.

Zizurkildarra oso gustura ageri da lortutakoarekin, «pozik nago egin dudana gogoratuz, horrela izan zen

eta gorputza ondo dudala, hau da, prestaturik nagoela ikusi ahal izan du». Halaber, ikusleentzat ikuskizun polita izan zela azaldu du, «hamabi aizkolarik batera lana egitea ez baita oso ohikoa». Bestalde, egurrak oso desberdinak zirela ere azaldu du Erasunek; «ustekabe handiak izan dira eta hori izan liteke arrazoietako bat; egurrak gogorrak ziren eta lana gustura egiten ez zuten uzten, horrela izan zen

nire kasuan», gehitu du. Horrela, faboritoetako zen Otaño ibartarra laugarren geratu izana asko harritu duela ere adierazi dio HITZARI zizurkildarrak. Hurrengo urtean lehenengo mailan ariko da Erasun, baina orain proba edo apustu garrantzitsu batean lehiatzeko prestatu beharrean dago, uztailearen 17an Olasagastiren aurka izango duena, alegia.

Hamabi aizkolarietatik, txapelketa geratu zenarekin batera eskualdeko beste hiru izan ziren, Unai Otaño ibartarra, Jesus Mari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra. Otaño ere faboritoen artean bazegoen ere, azkenean laugarren postuarekin konformatu beharra izan zuen. Bere aurretik, hain zuzen, askok Erasunekin batera faboritotzat zuten Aranbarri geratu zen. Jesus Mari Mujikaren kasuan zazpigarren geratu zen, eta Joseba Otaegik, larunbatean Urrezko Aizkolarien Txapelketan txapelkunorde geratu eta gero, hamaikagarren postuan geratu zen.

Igandean egin zuen eguraldia aipatzekoa da, bero handia egin baitzuen, eta hori nabaritu zuten aizkolariek euren lana egiterakoan. Bestalde, antolatzaileak oso gustura ageri dira, jende asko bildu baitzen herriko plazan. Jende ezaguna ere ikusi ahal izan zen, eta ho-

rien artean Jose Mari Olasagasti aizkolaria. Hain zuzen ere, Erasunekin apustua hitz egin da du, eta haren lana egitera etorriko zen. Sari banaketaren uanean, herriko agintariak, Gipuzkoako herri kirolen federazioko ordezkariak eta Xepla eta Hauspoa elkarten ordezkariak izan ziren.

SAILKAPENA ▶

1. Juan Manuel Otaño	19' 56"
2. Jesus Mari Laso	20' 11"
3. Jabier Aranbarri	20' 34"
4. Unai Otaño	21' 58"
5. Pello Etxeberria	22' 20"
6. Iñaki Aierbe	23' 17"
8. Jesus Mari Mujika	24' 50"
9. Arkaitz Iriarte	26' 08"
10. Joxe Mari Esnaola	27' 27"
11. Joseba Otaegi	27' 35"
12. Joxe Felix Zubizarreta	29' 58"

Bestalde, aurtan 25 urte bete dituen Xepla elkarteak, hurrengo ekitaldia izango dena prestatzen ari da, San Bartolome jaien aurreko igandean egingo den, pintxo lehiaketa hain zuzen.

Bestalde, aurtan 25 urte bete dituen Xepla elkarteak, hurrengo ekitaldia izango dena prestatzen ari da, San Bartolome jaien aurreko igandean egingo den, pintxo lehiaketa hain zuzen.

Praktikak hilabetez HITZAN
uztailean edo irailean

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa
lizentziatuetako Tolosaldeko eta Leitzaldeko
ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 - atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
(ekainaren 20a baino lehen)

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. Zer iruditzen zaizu bikote homosexualak ezkondu eta adoptatzeko eskubidea izatea? Emaitzak: Ondo: %64; gaizki: %19; berdin zait: %17.

HERRI KIROLAK ▶

Ezin izan da Urrezkorik lortu oraingoz

Saralegi, 'Zelailuzere'-kin eta Otaegi, bigarren; Kanflanka, hirugarren

JAIONE ASTIBIA

Ez da zorteko asteburua izan eskualdeko herri kirolarienetzat, pasa berri den hau, bi finaletan eta sailkapenetan, ez baitute irabazterik lortu. Baina, borroka polita eta ikuskizuna eskaini dutela ukatzerik ez dago, inolaz ere.

Bi urrezko sari zeuden jokoa, alde banatik: harri-jasotzaileena eta aizkolari gazteena; eta Euskal Herriko Segalarien Txapelketarako sailkapena bestetik.

Urrezko Harri-jasotzaileenean, Mieltxo Saralegi leitzarra, Zelailuze lagun zuela, Izeta III.a Irigoien bikotearen aurka aritu ziren, larunbat gauean Azpeitin.

Pastorkuaren omenezko sariketa honetan, bi bikoteak nor baino nor aritu ziren, batzuk harri handietan duten eskarmentuaz baliatu nahian eta besteak, berriz, gaztetasunaren azkartasunaz. Horrela, harri handitako saioan, Saralegi nagusitu zen, 200 kiloko 7 aldiz jasoz. Irigoienek baino 3 gehiago, eta bi puntu eskuratuz; 100 kiloko zilindroarekin, ordea, Izeta III.a nagusitu zen azkar asko egindako 25 jasoaldirekin, 19 egin zituen Zelailuzeak. Binako berdinketa zen une horretan. Txanda librean 100 kiloko bolarekin 3 minutuko saioa egin aurretik, finalerako beste 2 minutuko saioa erantsi zuten, txandaka, 9 arroa, 113 kiloko kubikoa zeinek aldi gehiagotan berdindu. Eta saio honetan ere, besteentzat bolumenez ttikiegia suert-

tatzen zitzaizen harria zela zirudien, gazteak nagusitu ziren, 20 aldiz leporatuz: 2-4koa beren alde.

Hala ere, azken saioan erabaki zen, 3 puntukoa izaki, alde batera edo bestera joan zitekeen oraindik saria: azkenerako hauspoa bete-bete eginda, 46 aldiz jaso zuten bola Saralegi eta Zelailuzek. Baina, gazteak hobeak izan ziren, 48 aldiz, azkenekoa ez zieten balizkotzat jo epaileek, jaso zuten eta 100 kilokoa. Eta horrekin Urrezko Harri-jasotzaile Saria eskuratu zuten. Ahaleginaren ahalegin, gazteak nagusi; eta harri-jasotzea ere bai, ziur.

Modutsu berean, joan zen gazteen Urrezko Aizkolariaren sariketa ere, Otaegi zizurkildarra Iriarteren aurka aritu zelarik. 45na ontzako bi enbor, 4 kana erdiko eta 60na ontzako beste bi enbor ebaki zituzten. Otaegik lanak eman zizkion Iriarteri: erabat gertu-gertutik jarraitu baitzion, eta hestu jarri zizkion lanak aurkariari, azken aizkora kolpea arte etsirik hartu gabe lanean jarraituz, biek ere bertan egiten zuen be-roaren eragina jasan behar izanez, gainera. Azkenerako, urrestildarra jabetu zen zape-laz.

Eta Euskal Herriko Segalarien lehen kanporaketa ere jokatu zen, Kanflanka segalari gaztea hirugarren gelditu zelarik, beraz, sailkapenetik kanpo. Leitzarrak lehen sariketa izaki, segalaritza barrendik ezagutzeko baliatu du aukera. Laister Nafarroakoan parte hartzekoa da bera.

LEITZA ▶ KULTURA

Ahots soinu indartsu bezain goxoekin etorri da Giltzarria abesbatza gurera

Kontzertua eskaini dute larunbat arratsaldean Leitzako elizan



Giltzarria abesbatza ekinean, larunbat iluntzeko kontzertuan; pianoa lagun izan zuten. JAIONE ASTIBIA

J. ASTIBIA

Zeruan eder ilargia, Abend-lie, De colores... Agnus Dei, Urrundik... Hauek bezalako herri kantuak eta polifonia saileko hainbat abesti eskaini zituen, larunbat iluntzean Leitzako elizan eman zuen kontzertuan, Bortziritako Giltzarria abesbatzak. Ahots goxo bezain indartsuz osatutako

abesbatza zela frogatu zuen, beste behin ere talde honek bakarkako bizpahiru abestirekin, baina baita elkarrekiko oso ongi osatuta dagoela ere, guztien artean oso ahots-soinu dotorea ateraz. Isabel Lacarren gidaritzapean, kontzertu bikaina eskaini zuen abesbatza honek.

Errepertorio anitza plazaratu zuten, estilo eta herrialde

desberdinetako doinu osatutakoa. Aipatzekoa da, gainera, abesbatzak piano jotzaile baten laguntza ere izan zuela, kamara kontzertu baten tankera ere izan zuelarik, beraz. Bertara joandakoak gozatu ederra hartuta, gustura aski atera ziren.

Kontzertuaren ondoren, Giltzarriako kideek Asketakoekin afaldu zuten elkarte batean.

iragarki laburrak ▶

Ennio
GESTION INMOBILIARIA

San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@innoennio.com
www.innoennio.com

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai, ikusteko modukoa, bista ederrak.

Ataun. San Martin. 2 logela.

Berritzeko. 75.125 euro !!

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ikaztegieta. 6 etxe abikien eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Ikaztegieta. Etxe abikia salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi

bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai.

Ikusgarria !!!

Tolosa. Alde Zaharrea hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Korreo. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro azoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Zezen Plazan. 87 m²-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

Ikusteko modukoa!!!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behian: garajea, komuna eta bokoa.
Txarama inguruan. 100 m²-ko

etxebizitza terrazarekin, egongela su bajuarekin, terrenoa eta garajearekin. Oso egoera onean.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto !!

Tolosa. Iurre. 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Egoera bikaina.

Tolosa. Ibai aldera eta hegoaldera. 4 logela, bi bainugela. Trasteleku eta garajea. Aukera paregabea !!

Tolosa. Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m²-ko bi etxebizitza bikain. Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailu eta berokuntzarekin !!!

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. 124m²-ko etxebizitza garajearekin. etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxeondo. Pisua garajearekin. Pisua 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajea 50 m²-koa, karabanentzat egokia.

Villabona. Kale Berria. 34 m²-ko garaje ibia salmentan.

hilberriak ▶ esleak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Garbiñe Barquilla Zabaleta
(Iraitz eta Xabier gure ikasleen ama)

Leitzako Erleta eskolako ikasle, irakasle, guraso eta langileek beren laguntasuna adierazi nahi diete, Iraitzi eta Xabierri, eta beren familiari atsekabezko une samin hauetan.

Leitzako Erleta eskola
LEITZA, 2005eko ekainaren 14a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Erosteke eta saltzeko Internetek zer aukera ematen dituen. Negozio edo enpresa txikiak nola aplikatu ditzaketen Merkataritza Elektronikorako Sistemak. Zure produktua berezia bada, nola baliatu Internet produktu hori segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko. Tolosaldea LH Institutuan 18:00etan.

Tolosa. Michel Maimer doktoarearen *Kirola nola egin bizkarra hondatu gabe* hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. XVII. San Joan Areto Futbol Txapelketa antolatatu du Arsenal kirol elkarteak ekainaren 17tik 26ra 1995-96 eta 1993-94 urteetan jaiotako Tolosaldeko eta Leitzaldeko neska-multientzat. Izen-ematea: Shanti Kirolak (943 65 34 24). Zozketa bihar izango da 19:30ean elkartean.

Tolosa. Valvanera-Ezkarai (Errioxa) mendi irteera antolatatu du Alpino Uzturrek iganderako. Zazpi orduko ibaldia da. San Lorenzo (2.271m) mendia igoko dute. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5, behea. 943 65 27 89).

Villabona. Euskal Herriko hiriburuak uztartuz: Bergara-Azkarate-Itziar eta Itziar-Indamendi-Orio irteerak larunbatean eta igandean. Izen-ematea: 943 69 44 58 edo Aizkardiren lokalean ostegunean 21:00etatik 22:00etara.

ZINEMA

Tolosa. *Un rey en La Habana.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti O. Lizarraga 7. 112
Tolosa. Ollareaga, A. Korreo kalea 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irrátia
11:00-14:00. Joxe Landa, Euskadiko Halterofilia Txapelketa, Xiba euskal jokoaz, azoka Pablo Alberdiren...
19:00. Errepublikapena.
22:00. Street Noise musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ibarrako lehen piperrak

TOLOSA ▶ Eskualdeko produktu ikurretako bat azaldu zen aurten lehen aldiz larunbateko azokan Berdura plazan

ERREDAKZIOA

Tolosako larunbateroko azoka Berdura plazan eskualdeko baratzetako produktu onenen ispilua da. Hor ikusten dira garaiari garai barazkiak eta berrikuntza ugari izaten da astero.

Lehen larunbatean Ibarrako piperrak agertu ziren lehen aldiz aurten azokan. Ibarrako Montes etxe famatuak eraman zituen saltzera eta harriera ona izan zuten bezeroen aldetik.

Uda partean entsaladan, babarrunekin, frejituta... jateko estimatuak izaten dira Ibarrako langostinoak. Beraz, bada-kizue, hemendik aurrera eskualdeko produktu ikurretako bat eskura daukazue.



Ibarrako Montes etxeko postuan jarri zituzten salgai larunbatean Ibarrako lehen piperrak. IÑIGO TERRADILLOS

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maxux eta Pello (Zizurkil).
Zorionak zuen zilarrezko etzeiengatik.
Zuen seme-alabek.

URTE ASKOAN
Jon Ander Aranalde Ramiro (Berastegi). Gaur 4 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Jesus M. Aburuza eta Gema Ugartemendia (Aduna).
Gaur 25 urte ezkondu zirela. Leire eta Egoitz.



URTE ASKOAN
Lontxito (Arribe). Epa guapo!
Egun eder bat pasatzea opa dizugu.
Muxux. 4 Antonian partez.



URTE ASKOAN
Kristina Izagirre (Tolosa). Senararen, seme-alaben, suherreraren eta biloba Asier, Ander eta Oihanaren partetik, zorionak azokara partez.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, tartea ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

txapelketa 05
hitza
kadeteen
FINALERDIAK
Telletxea-Ropon
Iturrioz-Narbarte
Ekainak 15
BIDANIAN
19:00etan
Antolatzailea:
AURRERA-SAJAZ PILOTA ESKOLA
Laguntzaileak:
Aduñako Udala / Bidasoako Udala /
Aizurko Udala / Alegialdeko Udala /
Tolosa Udala EROSKI / EREDU /
PASABAN / DVA / REVIGLASS /
LAEX / AKER / FRONTON JATEKIA